

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko apirilaren 15etik 19rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/04/15

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.- Alarma egoera. Neurri tributarioak.-** 14/2020 Errege Lege-dekretua, apirilaren 14koa, zenbait zerga aitorpen eta autolikidazio aurkezteko eta ordaintzeko epea luzatzen duena. [2020-4448 xedapena - 5 or.](#)
- **LURRALDE POLITIKAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitatearen Prestazioak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 13koa, Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorrarena, alarma egoeran zehar mutualisten aldi baterako ezintasunagatiko, haurdunaldiko arriskuagatiko eta edoskitzaro naturaleko arriskuagatiko subsidioa ordaintzen jarraituko dela bermatzen duena. [2020-4449 xedapena - 3 or.](#)
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Errepideko garraioak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 14koa, Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiarena, aldi baterako salbuesten duena salgaien garraioetan gidatzeko eta atsedenerako denborei buruzko arauak betetzea. [2020-4461 xedapena - 3 or.](#)

2020/04/16

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Aireko garraioa.**
 - Ebazpena, 2020ko apirilaren 8koa, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiarena, COVID-19a dela-eta deklaratu den alarma egoeran zehar, Palma-Menorca eta Palma-Ibiza arteko aire ibilbideetan, aire-garraioaren zerbitzuaren esleipenaren iraupena aldatu eta luzatzen duena. [2020-4468 xedapena - 2 or.](#)
 - Ebazpena, 2020ko apirilaren 10ekoa, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiarena, COVID-19a dela-eta deklaratu den alarma egoeran zehar, Kanariar Uharteetako zenbait aire ibilbideren zerbitzua emateko baldintzak eta modu zuzeneko esleipena ezartzen dituen. [2020-4469 xedapena - 4 or.](#)

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.-**

- **Alarma egoera. Lurreko garraioa.** Ebazpena, 2020ko apirilaren 14koa, Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiarena, 2020ko apirilaren 2ko Ebazpenaren osagarria, lurreko garraiobideetan maskarak banatzeko jarraibideak ematen dituena. [2020-4470 xedapena - 3 or.](#)

- **OSASUN MINISTERIOA**

- **Alarma egoera. Osasun espezialitateak.-** SND/346/2020 Agindua, apirilaren 15ekoa, zeinaren bidez erabakitzen den ebaluazioak egiteko epeen hasiera eta osasun prestakuntza espezializatuko osasun profesionalen erresidentziaren edo prestakuntza urtearen azken data. [2020-4471 xedapena - 2 or.](#)
- **Alarma egoera. Osasun Sistema Nazionalea.-** SND/347/2020 Agindua, apirilaren 15ekoa, martxoaren 19ko SND/266/2020 Agindua aldatzen duena. Horren bidez, zenbait neurri ezarri dira Gizarte Segurantzako Araubide Bereziakoko kolektiboari Osasun Sistema Nazionaleko farmazia prestazioetarako sarbidea bermatzeko. [2020-4472 xedapena - 2 or.](#)

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.**

- **Alarma egoera. Itsas prestakuntza.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 13koa, Merkataritzako Marinaren Zuzendaritza Nagusiarena, itsas prestakuntza teorikoa baimentzen duena urrutiko modalitateetan eta "on line" modalitateetan, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera indarrean dagoen bitartean. [2020-4481 xedapena - 5 or.](#)

[2020/04/17](#)

- **OGASUN MINISTERIOA. Gizarte Segurantza. Kontabilitatea.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 13a, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiarena, 2011ko uztailaren 1ekoa aldatzen duena. Ebazpen horren bidez, Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten erakundearen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorren egokitzapena onesten da. [2020-4488 xedapena - 15 or.](#)

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA.- Animalien babesa.-** APA/349/2020 Agindua, apirilaren 15ekoa, baimenak luzatzen dituena animaliak helburu zientifikoetarako erabiltzearekin lotutako proiektuetarako, esperimentazioan eta beste helburu zientifiko batzuetan (irakaskuntza barne) erabiltzen diren animaliak babesteko oinarritzko arau aplikagarriak ezartzen dituen otsailaren 1eko 53/2013 Errege Dekretuari jarraikiz. [2020-4489 xedapena - 2 or.](#)

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA.- Zerbitzu publikoak. Sarbide elektronikoa.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 15ekoa, Idazkariordetzarena, Presidentetzaren, Gorteekiko Harremanen eta Memoria Demokratikoaren egoitza elektronikora sartzeko helbidea aldatzen duena. [2020-4490 xedapena - 1 or.](#)
- **LURRALDE POLITIKA ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA.- Kargu altuak.-** TFP/350/2020 Agindua, apirilaren 16koa, urtarrilaren 8ko TFP/2/2020 Agindua aldatzen duena, zeinaren bidez zehazten den noiztik aurrera izango den eraginkorra Interes Gatazken Bulegoarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko betebeharra, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguan aritzea arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legean eta hura garatzeko Erregelamenduan (1208/2018 Errege Dekretuaren bitartez onetsi zen) aurreikusitako prozeduretan, eta aitorpenen, komunikazioen eta dokumentuen ereduak onesten dituen. [2020-4491 xedapena - 2 or.](#)
- **MINISTERIO DE SANIDAD**
 - **Estado de alarma. Fuerzas Armadas.-** Orden SND/351/2020, de 16 de abril, por la que se autoriza a las Unidades NBQ de las Fuerzas Armadas y a la Unidad Militar de Emergencias a utilizar biocidas autorizados por el Ministerio de Sanidad en las labores de desinfección para hacer frente a la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19.
 - **Estado de alarma. Medidas urgentes.-** Orden SND/352/2020, de 16 de abril, por la que se modifica la Orden SND/234/2020, de 15 de marzo, sobre adopción de disposiciones y medidas de contención y remisión de información al Ministerio de Sanidad ante la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19.
 - **Estado de alarma. Especialidades sanitarias.-** Corrección de errores de la Orden SND/346/2020, de 15 de abril, por la que se acuerda el inicio de plazos para realizar las evaluaciones y la fecha final de residencia o de año formativo de los profesionales sanitarios de formación sanitaria especializada.
- **OSASUN MINISTERIOA**
 - **Alarma egoera. Indar Armatuak.-** SND/351/2020 Agindua, apirilaren 16koa, Indar Armatuen NBQ unitateei eta Larrialdien Unitate Militarri baimena ematen diena Osasun Ministerioak baimendutako biozidak erabiltzeko desinfekzio lanetarako, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko. [2020-4492 xedapena - 2 or.](#)

- **Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** SND/352/2020 Agindua, apirilaren 16koa, martxoaren 15eko SND/234/2020 Agindua aldatzen duena, birusa ez hedatzeko disposizio eta neurriak hartzeari buruzkoa eta informazioa Osasun Ministerioari bidaltzeari buruzkoa, COVID-19ak eragindako osasun krisiko egoeraren aurrean. [2020-4493 xedapena - 5 or.](#)
- **Alarma egoera. Osasun espezialitateak.-** Akats zuzenketa, honako agindu honena: SND/346/2020 Agindua, apirilaren 15ekoa, zeinaren bidez erabakitzen den ebaluazioak egiteko epeen hasiera eta osasun prestakuntza espezializatuko osasun profesionalen erresidentziaren edo prestakuntza urtearen azken data. [2020-4494 xedapena - 1 or.](#)

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA.-**

- **Alarma egoera. Enplegurako prestakuntza.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 15ekoa, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarena, zeinaren bidez aparteko neurriak ezartzen diren haren kudeaketa eremuan COVID-19ak laneko eremuan enplegurako lanbide heziketaren arloan duen eraginari aurre egiteko. [2020-4506 xedapena - 10 or.](#)
- **Administrazio epeak. Dirulaguntzak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 8koa, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarena, zeinaren bidez, salbuespenez, COVID-19aren ondoriozko egoera dela-eta, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak 2019ko ekitaldi ekonomikoan autonomia erkidegoei libratutako funtsen justifikazio epea luzatzen den, aipatutako erakundearen aurrekontu orokorren kargura finantzatutako lan arloko dirulaguntzak kudeatzeko. [2020-4507 xedapena - 4 or.](#)

2020/04/18

- **TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA.- Dirulaguntzak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 14koa, Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuarena (E.P.E., M.P.), Administrazio Kontseiluaren 2020ko apirilaren 6ko Ebazpena argitaratzen duena. Ebazpen horren bidez, apirilaren 12ko 263/2019 Errege Dekretuaren (industria-sektoreko ETE-etan eta enpresa handietan energia-eraginkortasuneko jarduketak egiteko laguntza-programa arautzen duena) aurrekontua handitzen da [2020-4516 xedapena - 2 or.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Sendagaiak.-** SND/353/2020 Agindua, apirilaren 17koa, Agindu honen I. eranskina eguneratzen duena: SND/276/2020 Agindua, martxoaren 23koa, COVID-19ak eragindako osasun krisialdiko zenbait sendagairen informazio, hornidura eta fabrikazio arloko betebeharrak ezartzen dituena. [2020-4517 xedapena - 12 or.](#)

- **INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO MINISTERIOA.- Hitzarmenak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 16koa, Industriako eta Enpresa Txiki eta Ertainetako Idazkaritza Nagusiarena, Espainiako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialarekin sinatutako hitzarmena argitaratzen duena, babes-materialaren eskaintza eta eskariari buruzko informazioa emango duen plataforma teknologiko bat garatzeko, enpresek beren jarduera COVID-19tik babesteko segurtasun-baldintzetan garatu ahal izateko. [2020-4519 xedapena- 14 or.](#)

2020/04/19

- **OSASUN MINISTERIOA.- Alarma egoera.** Premiazko neurriak.- SND/354/2020 Agindua, apirilaren 19koa, COVID-19arekin kutsatzea prebenitzeko higie-neurri gisa gomendatutako erabilera-produktuak herritarrek eskuratzea bermatzeko salbuespenezko neurriak xedatzen dituena.- [2020-4525 xedapena - 5 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/04/15

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.-** AGINDUA, 2020ko apirilaren 3koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita Covid-19aren eragin ekonomikoaren ondorioz krisi-egoeran dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntzak ezartzen dituen Bideratu Covid-19 Programa. [1850 xedapena -12 or.](#)
- **ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.-** EBAZPENA, 2020ko apirilaren 8koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, aparteko dirulaguntzetarako deialdi bat argitaratzeko dena; dirulaguntzen hartzaileak norberaren konturako langileak edo langile autonomoak izango dira, zehazki beren jarduerak etenda dituztenak Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoera dela eta. [1852 xedapena -14 or.](#)

2020/04/16

- **OSASUN SAILA.-** AGINDUA, 2020ko apirilaren 14koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldi baterako eteten baitira nekazaritzako eta abeltzaintzako elikagai eta produktuen zuzeneko salmentako aisialdiko edo jai giroko merkatu eta azoka tradizionalak, ezartzen baitira nekazaritzako eta abeltzaintzako elikagai eta produktuen zuzeneko salmentako merkatu eta azoka tradizionalen (normalean, asterokoak) baldintza sanitarioak eta arautzen baita EAEko zenbait udalerritan denda-ibilgailuak baliatuz saltoki ibiltariek gauzatzen duten jarduera, SARS-CoV-2 (Covid-19) birusak sortutako pandemia dela eta. [1855 xedapena - 3 or.](#)

- **ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.-** AGINDUA, 2020ko apirilaren 8koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bitartez bigarren aldatsen baita Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2019ko abenduaren 17ko Agindua, Gizarte Larrialdietarako Laguntzetako gastu espezifiko bakoitzeko 2020. urtean gehienez eman daitezkeen diru-kopuruak ezartzen dituen, laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak adierazten dituen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzarentzat 2020rako aurrekontu-mugak finkatzen dituen. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak programaren kreditua handitzeko aparteko diru-partida emendatzea, 2020an, «Covid-19ak eragindako krisiaren aurkako neurriak» (12291) aurrekontu-programa. [1856 xedapena – 9 or.](#)

2020/04/17

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.-** AGINDUA, 2020ko apirilaren 15koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren beste agindu bat aldatzen duena, zeinaren bidez arautzen baitira bai dirulaguntza itzulgarriak itzultzeko egutegiaren eta inbertitzeko eta enplegua sortzeko aldiaren aparteko geroratze-eskaera, Gauzatu Industria, Bideratu eta Bideratu Berria programen onuradunei dagokienez, eta bai Indartu programako ordainketa aurreratzeko neurriak, Covid-19aren inpaktu ekonomikoari aurre egiteko.. [1861 xedapena – 3 or.](#)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2020/04/15

- **OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA.-** Foru Gobernu Kontseiluaren 180/2020 Erabakia, apirilaren 7koa. Onestea Arabako Foru Aldundiari COVID-19 dela-eta emandako zenbatekoen 2020rako lehentasunezko jardueraren adierazpena, hark izaera publikoko zerbitzu sozio-sanitarioetarako erabil ditzan.- [987 xedapena – 2 or.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/04/17

- **HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILA.** Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 3584 /2020 FORU AGINDUA, apirilaren 16koa, zeinaren bidez presazko eta salbuespenezko neurriak hartzen baitira Bizkaiko toki-erakundeetako kontu-hartzaileek eginiko barne-kontrolan, COVID-19aren ondorioz. [2020-072 \(I-284\) xedapena – 2 or.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/04/15

- Kontseiluaren 2020/521 (EB) Erregelamendua, 2020ko apirilaren 14koa, 2016/369 (EB) Erregelamenduaren arabera premiazko laguntza aktibatzen duena, eta Erregelamenduaren xedapenak aldatzen dituen, COVID-19aren agerraldia aintzat hartuta [L 117-3](#)
- **Batzordearen komunikazioa** — COVID-19aren *in vitro* diagnosiari eta horren funtzionamenduari buruzko orientazioak. [C-122I](#)

2020/04/16

- Batzordearen 2020/529 (EB) Betearazpen erabakia, 2020ko apirilaren 15ekoa, 2020/47 (EB) Betearazpen Erabakiaren eranskina aldatzen duena, zenbait estatu kideetan H5N8 azpimotako patogenotasun handiko hegazti-gripearen aurkako babes-neurriei buruzkoa. [Jakinarazpena: C(2020) 2369] (EEErako testu egokia). [L 118- 29](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO